

Nº 0001

***EUSKAL AUTONOMIA  
ERKIDEGOARI  
BURUZKO  
ETXEKO PRODUKZIOAREN  
KONTU SATELITEA***

2000ko martxo

# Aurkibidea

|                                                                                     |            |
|-------------------------------------------------------------------------------------|------------|
| <b>1. Sarrera.....</b>                                                              | <b>3</b>   |
| 1.1.- Aurrekariak .....                                                             | 3          |
| 1.2.- Helburuak .....                                                               | 4          |
| <b>2. Kontu satelitearen alderdi metodologikoak.....</b>                            | <b>.6</b>  |
| 2.1.- Etxegune kontzeptua .....                                                     | 6          |
| 2.2.- Etxeko produkzioa kontu satelitean zedarritzea .....                          | 6          |
| 2.3.- Etxeko produkzioaren balioespen-metodoa .....                                 | 9          |
| 2.3.1.- Lanaren balioa .....                                                        | 10         |
| 2.3.2.- Bitarteko kontsumoa, azken kontsumoa, kapital finkoaren eraketa gordina ... | 10         |
| 2.3.3.- Kapital finkoaren kontsumoa .....                                           | 13         |
| 2.3.4.- Zergak ken diru-laguntzak .....                                             | 15         |
| <b>3. Etxeko satelitean osatutako kontuak .....</b>                                 | <b>.16</b> |
| <b>4. Emaizen analisia .....</b>                                                    | <b>.18</b> |
| 4.1.- Balio erantsi sortua funtzioka .....                                          | 20         |
| 4.2.- Etxeko produkzioaren banaketa sexuka eta funtzioka .....                      | 21         |
| 4.3.- Etxeko produkzioaren kostuen banaketa .....                                   | 22         |
| 4.4.- Etxeguneen kontu zabaldua .....                                               | 24         |
| 4.5.- Etxeguneen azken kontsumoa kontu satelitean .....                             | 26         |
| 4.6.- Kapital finkoaren eraketa gordina .....                                       | 27         |
| 4.7.- Lanaren ondorioak .....                                                       | 27         |
| <b>5. Etxeko ekonomiaren kontu satelitea. 1993 eta 1998 .....</b>                   | <b>29</b>  |

# Sarrera

## 1.1.- Aurrekariak

Hemen aurkezten dugun lan hau<sup>1</sup> Eusko Legebiltzarrak 1996ko apirilaren 19ko osoko bilkuran Eustati eman zion aginduraren ondorio da, etxeko lana balioesteko aginduraren ondorio, hain zuzen. Agindu hori, era berean, urte batzuk lehenago nazioarteko hainbat forotan plazaratutako gizarte-kezken emaitza zen, hala nola honako foro hauetan: Nazio Batuak, emakumearen eskubideei buruzko txostena (New York, 1985), Gizarte Garapenari buruzko Mundu Gailurra (Kopenhage, 1995) eta Emakumeari buruzko Nazio Batuen Laugarren Mundu Konferentzia (Beijing, 1995).

Azkenaldi honetan, hainbat ikerketek ohartarazi dute ezen guztiz beharrezkoa dela etxeko produkzioaren balioa eta bolumena kalkulatzeko neurgailu-multzo erkide bat garatzea, zeinak nazioarteko erkaketak ere erraztuko baititu. Horrela, lortzen diren emaitzek aplikazio ugari izango dute ekonomiaren eta gizartearen arloan:

- \* lan ordaindu gabe baina beharrezko bati buruzko informazioa ematea, luzaroan ekonomiako beste sektoreen aldean ezkutuan egon dena
- \* agerian uztea zenbateko garrantzia duen etxeko produkzioak lurralde batean sortzen den aberastasunaren aldean, hau da, Barne Produktu Gordinaren aldean duen garrantzia
- \* lan ordaindu gabearen balioa kalkulatzeko aplikazioak, gizarte-politikako xedeak zehazteko (dibortzioak, zauriak edo heriotzak)
- \* etxeko ekonomiaren funtzionamendu dinamikoaren analisisia egitea eta sektore publikoarekin eta merkatuarekin dituen elkarrenerginak aztertzea
- \* kontsumo pribatuaren analisiari buruzko hausnarketa erabilgarriak ere eskaintzea

Nazioarteko eremuan, hainbat azterketa egin dira etxeko lanaren balioespina egitera bideratuak; azterketa horiek, ordea, ez zeukaten metodologia homogeneorik, herrialde guztien arteko erkaketak egitea ahalbidetuko zuen metodologiarik, alegia. Era berean, ez zeukaten kontabilitate nazionalaren arloko balioespenik; beraz, ez zen posible jarduera hori Barne Produktu Gordina osatzen duten beste jarduera ekonomikoekin erkatzea. Europaren kasuan, hain zuzen, ez zegoen zuzenean Kontuen Sistema Europarretik ateratako metodologiarik.

Egoera horiek zuzentzeko, 1995 eta 1998. urteen artean, Eurostatek etxeko produkzioaren kontu satelitea osatzeko metodologia garatzeko proiektu bat sustatu zuen. Proiektu hori Finlandiako Estatistika Erakundeak burutu zuen, eta abiapuntutzat hartuko da Europar Batasunak 2000. urteko egitarauan garatuko duen metodologian.

<sup>1</sup> Lan hau Cristina Prado Vallek (EUSTAT) egina da.

Metodologia hori<sup>2</sup> zehatz-mehatz jarraitu da Euskal AEko Etxeko Produkzioaren Kontua osatzerakoan; hala ere, aipatu behar da aitzindaria dela metodologia hori erabiltzea, nahiz eta, aldi berean beste herrialde batzuetan ere erabiltzen ari den, hala nola Italian, Luxenburgon, Eslovenian eta Finlandian<sup>3</sup>.

## 1.2.- Helburuak

Etxeko kontu satelitearen helburua da etxeguneek ekindako produkzio-jardueri buruzko irudi orokor bat eskaintzea eta jarduera horiek ekarritako balio ekonomikoaren zenbatespen bat ekartzea. Hori dela eta, etxeguneetan produzitutako jarduera guztiak, dela Kontuen Sistema Europarrean<sup>4</sup> (aurrerantzean KSE) sartuak, dela ez sartuak, kontu satelitearen barruan sartu beharko dira, aipatutako ikuspegi orokor horri erantzuteko

1.1 taulan, etxeguneei buruzko kontu satelitearen helburua irudikatzen da. Sateliteak etxeko sektorea hartzen du, Kontuen Sistema Europarrean aurkeztzen den eran, bai eta etxeko produkzioa ere, nahiz eta ez den sartzen kontu nazionaletan.

### 1.1 TAULA. ETXEKO PRODUKZIOAREN KONTU SATELITEA

|                                | KSEko etxeko sektorea          |                                                  | KSEan sartzen ez den etxeko produkzioa                                |                                                |
|--------------------------------|--------------------------------|--------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------|
|                                | Merkatu-<br>-produkzioa<br>(1) | Bertako erabilerako etxeko produkzioa            |                                                                       | Borondatezko<br>produkzioa<br>(zerbitzuak) (4) |
|                                |                                | Bertako kontuko<br>produkzioa<br>(ondasunak) (2) | Bertako erabilerako<br>produzitutako<br>ondasun eta<br>zerbitzuak (3) |                                                |
| P1 Produkzioa                  |                                |                                                  |                                                                       |                                                |
| P2 Bitarteko kontsumoak        |                                |                                                  |                                                                       |                                                |
| B1 Balio erantsi gordina       |                                |                                                  |                                                                       |                                                |
| K1 Kapital finkoaren kontsumoa |                                |                                                  |                                                                       |                                                |
| B1n Balio erantsi garbia       |                                |                                                  |                                                                       |                                                |

KSEren barruan, etxeguneeen sektorea batik bat etxegune horiek egiten duten merkatu-  
-produkzioak (1) (baltzu pertsonalistak, autonomoak, ondasun-erkidegoak, ...) zehazten du, bai eta borondatez egiten den ondasun-produkzioa ere (eraikinak eraikitzea). Era berean, etxeko sektorearen barruan, badago bertako erabilerako etxeko produkzioaren beste zati txiki bat ere (2), eta hori bai kontuan hartzen da KSEn. Etxeko produkzio horretan sartzen dira, besteak beste, autokontsumorako nekazaritza-produkzioa, jabeek eurek okupatutako etxebizitzaren alokairu-zerbitzua eta etxeko langile ordainduak produzitutako etxegune-zerbitzuak.

Etxeguneek egindako bertako erabilerarako gainerako produkzioa (3) ez da sartzen KSEren mugen barruan, eta etxegune horiek sortutako produkzioaren zatirik handiena da. Era berean, borondatezko lana edo laguntza informala (4), etxeguneek beren kabuz

<sup>2</sup> Metodologia para una Cuenta Satélite de Producción Doméstica. Johana Varjonen. Euskadiko Nazioarteko Estatistika Mintegia. 38. zk.

<sup>3</sup> Txosten hau idatzi denean, oraindik ez daude argitaratuta beste herrialde horietako emaitzak.

<sup>4</sup> Europar Batasuneko herrialdeek euren buruei ematen dizkieten arauen multzoa, hau da, ekonomia bakoitzaren kontabilitate nazionala osatzeko arauak.

egiten dutena, KSEtik kanpo geratzen den etxeguneen produkzioan hartu beharko da kontuan.

Etxeguneen bertako erabilera deritzan produkzioa da, neurri handi batean, kontu nazionaletan agertzen ez dena, eta lan honetako berritasuna da, nahiz eta etxeko produkzioaren kontu satelitearen osagai guztiei buruzko balioespen bat ere eskainiko den.

Kontu satelite hori 1998 eta 1993. urteei buruzkoa izango da, zeren urte horiei buruz baitago kontu satelitea osatzeko oinarritzko estatistika: Denbora Aurrekontuen Inkesta (aurrerantzean, DAI), hain zuzen.

Aurkezpenari dagokionez, KSEk bere kontu guztietan aurkezten duen egitura bera hartzen du kontu sateliteak. Azterlan honetarako, produkzio-kontua eta ustiapen-kontua baino ez dira aurkeztuko. Era berean, ekonomia zabalduari buruz ere kontu horiek eta ondasun eta zerbitzuena aurkeztuko dira, hau da, ekonomia orokorrari buruzko kontuak, bertako azken erabilerako etxeguneen produkzioaren zatia ere, KSEtik aterako kontuetan sartzen ez dena, kontuan hartuz.

Kontu sateliteak bertako azken erabilerako etxeko produkzioaren kontu guztiak aurkeztuko ditu, etxeguneko funtzio bakoitzaren arabera. Hona nola definitzen diren:

- ◆ Etxebizitza eskaintzea: etxe edo solairu bat erosi edo alokatzea, etxea janzteia, hornitzea, konpontzea, etab.
- ◆ Elikadura eskaintzea: otorduak antolatzea, osagaiak erostea, janaria prestatzea eta zerbitzatztea, ontziak garbitzea, etab.
- ◆ Jantziak eskaintzea: arropa erostea edo ohila erosi eta soinekoak egitea; arropa garbitzea, lisatzea, jostea, etab.
- ◆ Zainketak eskaintzea: hurrei, gaixoei, zahar gaixobereiei edo familiako beste kide batzuei.

Kontu satelitearen kontu bakoitza Euskal AEn mailan aurkeztuko da, eta sexuen bereizketarik gabe; dena dela, lurraldeka eta sexukako azterketarako, KSE balioespenetan sartuta ez dagoen bertako azken erabilerako etxeko produkzioa eskaintzen da, etxeguneko funtzioa.

## Kontu satelitearen alderdi metodologikoak

### 2.1.- Etxegune kontzeptua

Kontu satelitean erabili den etxegune kontzeptua kontu nazionaletan erabiltzen den bera da (KSEren arabera), eta honela definitzen da: "etxebizitza bera, euren sarrera eta aberastasun guztiak edo batzuk partekatzen dituen eta zerbitzu-ondasun batzuk elkarren artean kontsumitzen dituen pertsona talde txiki bat". Kontu nazionalak bezala, sateliteak etxegune egoiliarak hartzen ditu, bai eta erakunde-etxeguneak ere, ospitale, ostatu, etab.etan bizi diren pertsonen osatuak. Azken horietan, datuak lortzeko aukera oso txikia da, nahiz eta onartzen den horrek ez duela gogor eragingo emaitzetan.

Etxegune kontzeptuari kontsiderazio desberdina ematen zaio kontu nazionaletan eta etxeko satelitean, eta alde hori kontzeptu horri egozten zaizkion funtzioetan datza. Lehenetan, funtzio egotzi nagusiak lan-ekarpenak dira, kontsumitzailea eta ekintzailea, merkatu-ondasunak edo finantzaz besteko zerbitzuak produzituz. Aldiz, etxeko satelitean, kontsumitzaile funtzioa handitu egiten da eta produktore funtzioa ere hartzen du. Izan ere, etxeguneak enpresatzat kontsideratzen dira, eta ondasun eta zerbitzuak etxeguneko kideek produzitzen dituzte; ondasun eta zerbitzu horiek guztiak ere haiek kontsumitzen dituzte. Kideek etxegunean duten zeregin nagusia etxeguneko kideen oinarritzko beharrak asetzea da: bizilekua atontzea; janaria prestatzea, arropa prestatzea eta bizitza fisikorako zainketa beharrezkoak. Azken batean, etxegune orok bere buruari eskaini behar dizkion ondasun eta zerbitzuak, bai berak produzituz, bai merkatuan erosiz.

### 2.2.- Etxeko produkzioa kontu satelitean zedarritzea

Merkatuz besteko etxeko produkzioa balioesterakoan, honako hau da alderdirik garrantzitsuenetako bat: etxegunean egiten diren jardueretatik, zehaztea zein diren produktiboak, eta, beraz, zein diren balioesgarri. Xede horrekin, "hirugarren partearen irizpidea" delakoa erabiltzen da. Margaret Reid<sup>5</sup>-ek sartu zuen irizpide hori, eta beraren asmo nagusia honako hau da: jarduera bat produktibotzat kontsidera daiteke, beste norbaitengan eskuordetu badaiteke, elkartruka daitekeen output-a eskaintzen badu.

Margaret Reid-en hitzen arabera «jarduera bat langile ordaindu bati eskuorde badakioke, jarduera eskuordetzekoa bada, orduan jarduera hori produktibotzat kontsideratu behar da ...». Etxeko produkzioa etxeguneko kideek eurentzat burutzen dituzten jarduera ordaindu gabeak dira. Jarduera horiek merkatuko produktuez eta zerbitzu ordainduz ordezkatu daitezke, baldin eta beste gorabehera batzuek (hala nola, sarrerak, merkatuko baldintzak eta gorabehera pertsonalak) zerbitzu hori etxeko taldetik kanpoko beste norbaiti eskuordetzea ahalbidetzen badute.

<sup>5</sup> Reid 1934, Wood 1997-an aipatua.

Arestian aipatu denez, kontu satellite hau osatzeko estatistika-iturria DAI<sup>6</sup> (1998 eta 1993) da. Inkesta horren xedea zera da: neurtzea biztanleek jarduera bakoitzari egunean zenbat denbora eskaintzen dioten. Estatistika aipatu horretatik, "hirugarren partearen irizpidearen" arabera produktibotzat kontsideratzen diren jarduerak hautatu ziren, jarduera horiei eskaintako denbora-tarteak diru aldetik balioesteko asmoz.

2.1 TAULA. BERTAKO AZKEN ERABILERAKO ETXKO PRODUKZIOA, FUNTZIOAK

| FUNTZIOAK                              | ETXEBIZITZA ESKAINTZEA                                                                                                                      | ELIKADURA ESKAINTZEA                                                                                                                 | JANTZIA ESKAINTZEA                                                               | ZAINKETAK ESKAINTZEA                                                       |
|----------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------|
| OUTPUT-A                               | Etxeguneko kideentzako ostatua. Egoiliar jabeek produzitutako <sup>(1)</sup> zerbitzuak                                                     | Etxeguneko kideentzako bazkariak, askariak                                                                                           | Etxeguneko kideentzako arropak eta arropak zaintzea                              | Zainketa-zerbitzuak haur, gaixo eta zaharrentzat                           |
| <b>Jarduera nagusiak</b>               | Etxeko lan handiak (341)<br>Eskultura, pintura (373)<br>Brikolajea (376)<br>Etxebizitza eraikitzea eta konponketa handiak (E)               | Janariak prestatzea (311)<br>Frutak eta barazkiak zuritzea (312)<br>Janariak zerbitzatzea (315)<br>Lehen sektoreko autokontsumoa (E) | Arropa jostea (371)<br>Brodatuak (372)                                           | Haurrak zaintzea (41)<br>Jokoak eta heziketa (42)<br>Helduak zaintzea (43) |
| <b>Jarduera osagarriak</b>             |                                                                                                                                             |                                                                                                                                      |                                                                                  |                                                                            |
| - Erosketak                            | Kontsumo-gai iraunkorrek erostea (352)<br>Erosketak egitea (355) (P)<br>Posta bidezko erosketak (358)<br>Itxarotzea eta ilaran egotea (363) | Eguneroko erosketa (351)<br>Autoko erosketak antolatzea (356)<br>Ilaretan itxarotzea (357)                                           | Erosketak egitea (355)                                                           |                                                                            |
| - Mantenimendua                        | Hornikuntza, berokuntza (342)<br>Mantenimendu-zerbitzuak (354)<br>Konponketak (374)                                                         |                                                                                                                                      |                                                                                  |                                                                            |
| - Lorazaintza                          | Lorazaintza (377)                                                                                                                           | Etxeko animaliak zaintzea (378)                                                                                                      |                                                                                  |                                                                            |
| - Garbiketa                            | Etxea garbitzea (321)<br>Oheak egitea (322)<br>Gelak txukuntzea (323)                                                                       | Ontziak garbitzea (313)<br>Ontziak jasotzea (314)                                                                                    | Garbitzea (331)<br>Lisatzea (332)<br>Konpontzea (333)<br>Arropa antolatzea (334) |                                                                            |
| - Garraioa                             | Auto garajejan sartzea/ateratzea (345)                                                                                                      | Beste joan-etorri batzuk (P)                                                                                                         | Beste joan-etorri batzuk                                                         | Beste norbaiti laguntzeko joan-etorriak (82)                               |
| - Kudeaketa                            | Kontuak egitea, paperak antolatzekoa (344)<br>Etxe-aldatzeak (347)<br>Istripuak, lapurretak (348)<br>Kudeaketa aktiboak (361)               |                                                                                                                                      |                                                                                  |                                                                            |
| <b>Etxeko lan ordainduko jarduerak</b> | Aipatutako jarduera guztiak, etxeko langile ordainduak egiten dituztenean                                                                   |                                                                                                                                      |                                                                                  |                                                                            |

(1) Kontabilitate nazionalen etxebizitzari egotzitako alokairuak deitzen direnak.

<sup>6</sup> Ikus Denbora Aurrekontuen Inkesta, 1998. Eustat

2.1 taulan, funtzioka taldekatuta agertzen dira etxeko produktiotzat kontsideratzen diren etxeko jarduerak. Horietako gehienak Denbora Aurrekontuen Inkestatik hartu diren jarduerak dira, eta aipatu estatistikan erabiltzen den kodearekin kodetuta agertzen dira. Bestalde, (E) batez markatutako beste jarduera batzuk ere badaude, hau da, bertako azken erabilerako etxeko jarduerak, kontabilitate nazionalan sartuak dira eta balioespena kontabilitate horretan zenbatesten zaie.

Era berean, 2.1 taulan, funtzio bakoitzaren barruan, alde batetik, jarduera nagusiak agertzen dira, eta bestetik, jarduera osagarritzat kontsideratzen direnak. Jarduera osagarria, KSEn (KSE 3.1.2) bezala, honela definitzen da satelitean: «enpresaren barruan –kasu honetan, etxeguneen barruan– burutzen diren jarduera gehigarriak, jarduera nagusiak edo bigarren mailakoak sortu edo garatzea ahalbidetzen duten baldintzak sortzeko asmoz». Jarduera horien adibide batzuk dira, besteak beste, erosketak egitea, mantenimenduko lanak, funtzio bakoitzari erantsitako garraioa, etab.

Illo horretatik, aipatu behar da zenbait jarduera (hala nola, garraioa eta erosketak) funtzio askoren artean sailkatu behar izan direla, erosketa-motaren eta garraio-helburuaren arabera. Hain zuzen, azken kasu horretan, DAik ez zuen nahikoa destaldekatzerik eskaintzen, garraioa funtzio guztien artean banatzeko; hori dela eta, banaketa bat egin behar izan da, etxegunetik kanpo burutzen diren eta garraio-motaren bat erabiltzen duten jardueren arabera.

Jarduera produktiboak eta ez-produktiboak bereizteko adibide batzuk, muturreko kasuei buruz, hirugarren partearen irizpidea aplikatuz, hauek lirateke:

- ◆ Autohezkuntza bazter uzten da, zeren, nahiz eta ondorio ekonomikoak izan, ikasketa ez baitaiteke beste inorengan eskuordetu.
- ◆ Norbere burua garbitzea, janzteia, makillajea jartzea bazter uzten dira, jarduera horiek, oro har, ez baitaitezke merkatuan erosi.
- ◆ Lorategia eta maskotak zaintzea, txakurra ateratzea barne, produkzioaren mugaren barruan sartzen dira, jarduera horren zati bat eskuorde egin badaiteke.
- ◆ Ondasun eta zerbitzuak erostea jarduera produktiboa da, zerbitzu medikoak erostea, ile-apaindegira joatea edo antzeko gorputz-zerbitzuak lortzea izan ezik, horiek ez baitaitezke eskuorde haien onura jasotzen duena ez den beste norbaitengan.
- ◆ Haurrak produktiboak dira, baina zinemara edo jatetxeetara joatea ez-produktiboak dira.

Etxeko satelitean kontuan hartu behar zen beste etxeko jarduera bat honakoa zen: etxeguneetako **borondatezko lana eta laguntza informala**. Jarduera hori, berez, ez da beharreakoa etxegunea existitzeko; dena dela, ordainsaririk gabe egiten da eta merkatuan eros liteke. Hori dela eta, etxeguneak edo bertakoak ez diren erakunde-unitateak (irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuak) mesedetzen ditu, eta, beraz, funtzio desberdin gisa sartu beharko da etxeko produkzioaren barruan

Borondatezko lanaren barruan, bi mota bereizi behar dira: laguntza informala deritzana, hau da, pertsona-talde bati norbere kabuz laguntza ematea (auzokoei eta familiakoei laguntzea, ordainsaririk gabe), eta borondatezko lan formala, hau da, irabazi-asmorik gabeko erakunde bidez egiten dena (etxeguneei laguntzea, antolakunde edo



elkarteetan lan egiten duten pertsonen bidez). Borondatezko lan hori jarduera produktiboa da, eta aisialdiko jardueratik bereizten da, hirugarren partearen irizpidearen bidez, hau da, biztanleak funtzio aktibo bat izan behar du antolakunde edo elkarteetan du (kargu bat izatea: diruzaina, elkarburua...).

Euskal AERI buruzko kontu sateliteari dagokionez, borondatezko lan informala izan da kontuan, “auzoei edo familiari laguntzea” (547) DAIn. Borondatezko lan formala, kontsideratu behar zen zentzuan, ezin izan da atera inkesta horretatik, gai hori da, hain zuzen, hurrengo DAIn hobetu beharko den gaietako bat.


## 2.3.- Etxeko produkzioaren balioespen-metodoa

Etxeko produkzioari eskainitako orduen balioespena gai garrantzitsua da; berebiziko garrantzia du gai horrek lan honen emaitzan, zeren soldata-mota bat edo bestea erabiltzeak emaitza oso desberdinak ekar baititzake<sup>7</sup>. Gai hori aztertu izan da beste herrialde batzuek egindako azterketaren batean<sup>8</sup>.

Euskal AEko kontu satelitean, produkzioaren balioespena, gainerako gaiak bezala, aipatutako lanean, Eurostatek bultzatutako lanean, ezarritako gomendioetan oinarritu da. Balioespen adierazia produkzioa kostuen bidez balioestea da, kontu nazionaletan merkatuz besteko produkzioa, herri-administrazioek eta irabazirik gabeko erakundeek egiten dutena, balioesteko erabiltzen den metodo bera, alegia.

Metodo horrek produkzioa osatzen duten input guztiak zenbatestea eskatzen du, 2.1 grafikoan agertzen diren bezala:

### 2.1. GRAFIKOA: KOSTUETAN OINARRITUTAKO METODOA



<sup>7</sup> Metodología para una Cuenta Satélite de la Economía Doméstica. 88 – 90 orr. EUSTAT.

<sup>8</sup> El Travail Domestique essay de quantification. A. Fouet, A. Chandeau. INSEE, 1981.

Gaur egun, Europako herrialde guztien estatistika-garapena kontuan izanik, oro har, kontsideratzen da ezen metodo hori dela bidezkoena, etxeko produkzioa kalkulatzeko.

Ondoren, azalduko dugu euskal kontu satelitean zein kalkulu-metodo erabili dugun etxeko produkzioaren osagai bakoitza zenbatesteko.

### 2.3.1.- Lanaren balioa

Etxeko lanaren lan-kostua da etxeko produkzioaren garrantzi handieneko osagaia, eta bereziki garrantzitsua da etxeko produkzioaren ordu-kopuruari (DAIn lortutakoari) aplikatutako ordukako alokairua.

Aplikatu beharreko soldata hautatzerakoan, Lanbideen Sailkapen Estandar eta Nazioarteko Europarreko (ISCO88) maila hauen alokairua gomendatzen da: 3231 (haur-zaintzaile profesionala), 5121 (giltzazaina) edo 9131 (etxeko laguntzaileak edo garbitzaileak). Sailkapen horren egokitzapen espainiarra Lanbideen Sailkapen Nazionala (LSN-94) da, hau da, giltzazainen alokairua.

Kontuan izanik herrialde batzuetan ez dela garatu 1995eko lau digitukako Alokairu Egituraren Inkesta<sup>9</sup>, gomendatzen da, arestian aipatutako mailak ezean, 51. maila hartzea. Maila horrek, “zerbitzu pertsonalen langileak” izenekoak, badu beste abantaila bat, aurreko kodeetan sartzen ez ziren antolaketa- eta zuzendaritza-lanbideak sartzea, hain zuzen. Izan ere, alderdi horiek etxeko lanean burutzen diren zeregin gehienak betetzen dituzte. Logikoa denez, azken maila hori hartu da Euskal AEko Kontu Sateliterako, eta 1998 eta 1993. urteei buruzko prezioen indizeekin eguneratu da.

Satelitean kontsideratzen den alokairua kopuru gordinetan da, hau da, langileak kotizazio-sistemei egiten dizkien ordainketa guztiak sartzen dira, bai eta enpresek atxikitzen dituzten lanaren errendimenduaren gaineko zergak ere, kontabilitate nazionalean kontsideratzen den bezalaxe.

### 2.3.2.- Bitarteko kontsumoa, azken kontsumoa, kapital finkoaren eraketa gordina

Etxeko satelitean, bitarteko kontsumoak, kontu nazionaletan bezala, etxeko produkzioaren prozesuan input gisa kontsumitutako ondasun eta zerbitzuen balioa hartzen du. Beraz, adibidez, maila hori izango dute elikagaiek, janariak prestatzean erabiltzen den energiak, janariak erostean erabiltzen den garraioaren gastuak, etab.

Kontu nazionalen barruan, etxeguneek erosten dituzten ondasun eta zerbitzu guztiak (norberaren etxebizitza izan ezik, hori KFEG<sup>10</sup> kontsideratzen baita), familien azken kontsumoan sartzen da; baina, kontu satelitearen barruan, azken kontsumo horretatik, etxeko produkzioan input gisa parte hartzen duten ondasun eta zerbitzuak, hau da, bitarteko kontsumoa, bereizi behar da. Era berean, ondasun iraunkorrak diren erosketa-zatia ere bereizi beharko da, kontu sateliteren ikuspegitik kapital-ondasuna baitira, eta eraketa gordina osatzen dute. Azkenik, bereiziko da kontsumoaren zein zati den azken kontsumoa, hau da, produkzioaz besteko jardueretara bideratua.

<sup>9</sup> Inkesta hori Europar Erkidegoaren eremuan burutu zen.

<sup>10</sup> Kapital Finkoaren Eraketa Gordina.

Lan horretarako, azken kontsumoaren xehekapena (hiru osagai horietako xehekapena) 83 sektore ekonomikoka egin da, Kontu Ekonomikoetan ere azken kontsumoa sektORIZAZIO horretan baitago. Xehekapena, era berean, Denbora Aurrekontuen Inkestak edo Familia Aurrekontuen Inkesta Jarraituak (FAIJ) eskaintzen dituen adierazleen bidez egingo da, ahalik eta destaldekatzeko handienaz tratatua, eta erreferentziazat, Eurostaten proposamenetik egindako gomendioak hartuz.

2.2 taulan, 1998. urteko azken kontsumoaren banaketa ikus daiteke, nola banatzen den kontu satelitea osatzeko beharrezko diren hiru osagaietan, eta banaketaren kasuan, banaketa hori egiteko erabili diren estatistika-iturriak agertzen dira.

Aipatu behar den beste alderdi bat azken kontsumoak etxeko satelitean eskatzen duen tratamendua da, ez baita kontabilitate nazionalean egindakoa bera.

Kontu Nazionaletan, etxeguneen azken kontsumoak output-aren zati bat baino ez du estaltzen: KSEren mugan sartzen den produkzioa; falta den output-aren zatia sartzeko, azken kontsumoaren birsailkapenak eragindako doitzeak beharrezkoak dira. Hurrengo eskeman, etxeko azken kontsumoaren formula berrikusia azaltzen da:

#### *Kontsumoa Kontabilitate Nazionalean*

Etxeguneen azken kontsumoaren gastua

- + Herri-administrazioen banakako kontsumoaren gastua
- + Irabazi-asmorik gabeko erakundeen azken kontsumoaren gastua (etxeguneen sektorea)
- = Etxeguneen azken kontsumoa

#### *Kontsumoa Etxeko Satelitean*

Etxeguneen azken kontsumoa

- Etxeko produkzioarako produktu iraunkorretako gastuak (KFEG, satelitean)
- Bitarteko kontsumoko gastuak
- + Etxeko produkzioaren output-a (KNn ez sartua)
- = Etxeguneen azken kontsumoaren guztizkoa

| 2.2. TAULA. KONTU EKONOMIKOEN AZKEN KONTSUMOAREN BANAKETA, 1998: KONTU SATELITERAKO BITARTEKO KONTSUMOA, ONDASUN IRAUNKORRETA KO KONTSUMOA ETA AZKEN KONTSUMOA |                              |                    |                        |                             |                              |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------|--------------------|------------------------|-----------------------------|------------------------------|
|                                                                                                                                                                | Kontsu. pribatua<br>OIT 1998 | Azken<br>kontsumoa | Bitarteko<br>kontsumoa | Kapital finko.<br>kontsumoa | Banaketa-<br>iturri erabilia |
| 1. Nekazaritza                                                                                                                                                 | 67307                        | 0                  | 67307                  | 0                           |                              |
| 2. Abeltzaintza                                                                                                                                                | 16897                        | 0                  | 16897                  | 0                           |                              |
| 3. Basogintza                                                                                                                                                  | 369                          | 316                | 53                     | 0                           |                              |
| 4. Arrantza eta akuikultura                                                                                                                                    | 39983                        | 0                  | 39983                  | 0                           |                              |
| 5. Ikatzak                                                                                                                                                     | 655                          | 561                | 93                     | 0                           | DAI                          |
| 6. Petrolioa eta gasa ateratzea                                                                                                                                | 0                            | 0                  | 0                      | 0                           |                              |
| 7. Uranioa ateratzea                                                                                                                                           | 0                            | 0                  | 0                      | 0                           |                              |
| 8. Metalezko meak                                                                                                                                              | 0                            | 0                  | 0                      | 0                           |                              |
| 9. Ez-metalezko meak                                                                                                                                           | 0                            | 0                  | 0                      | 0                           |                              |
| 10. Okela-industriak                                                                                                                                           | 132768                       | 0                  | 132768                 | 0                           |                              |
| 11. Esne-industriak                                                                                                                                            | 52776                        | 0                  | 52776                  | 0                           |                              |
| 12. Arrain-kontserbak                                                                                                                                          | 29149                        | 0                  | 29149                  | 0                           |                              |
| 13. Ogia eta errotaritza                                                                                                                                       | 47207                        | 0                  | 47207                  | 0                           |                              |
| 14. Bestelako elikagai-industriak                                                                                                                              | 55852                        | 12717              | 43135                  | 0                           | FAIJ                         |
| 15. Edariak                                                                                                                                                    | 23724                        | 23724              | 0                      | 0                           |                              |
| 16. Tabakoaren industria                                                                                                                                       | 50505                        | 50505              | 0                      | 0                           |                              |
| 17. Ehunaren industria                                                                                                                                         | 19873                        | 17042              | 0                      | 2831                        | DAI                          |
| 18. Jantzigintza eta larrugintza                                                                                                                               | 96093                        | 96093              | 0                      | 0                           |                              |
| 19. Larruaren eta oinetako ind.                                                                                                                                | 24223                        | 24223              | 0                      | 0                           |                              |
| 20. Zurgintza                                                                                                                                                  | 3655                         | 3134               | 521                    | 0                           | DAI                          |
| 21. Papergintza                                                                                                                                                | 4934                         | 4934               | 0                      | 0                           |                              |
| 22. Argitalpena eta arte grafikoak                                                                                                                             | 29449                        | 29449              | 0                      | 0                           |                              |
| 23. Petrolioa fintzea                                                                                                                                          | 121516                       | 104210             | 17306                  | 0                           | DAI                          |
| 24. Oinarritzko kimika                                                                                                                                         | 0                            | 0                  | 0                      | 0                           |                              |
| 25. Industri kimika                                                                                                                                            | 1326                         | 1326               | 0                      | 0                           |                              |
| 26. Azken kimika                                                                                                                                               | 54158                        | 33020              | 21137                  | 0                           | FAIJ                         |
| 27. Kautxua eta plastikoak                                                                                                                                     | 3969                         | 3675               | 294                    | 0                           | DAI                          |
| 28. Plastikozko artikulua                                                                                                                                      | 14641                        | 12556              | 2085                   | 0                           | FAIJ                         |
| 29. Beiragintza                                                                                                                                                | 1143                         | 0                  | 0                      | 1143                        |                              |
| 30. Zementua, karea eta igeltsua                                                                                                                               | 18                           | 16                 | 2                      | 0                           |                              |
| 31. Bestelako ez-metalezkoak                                                                                                                                   | 1300                         | 1115               | 185                    | 0                           |                              |
| 32. Altzairugintza                                                                                                                                             | 0                            | 0                  | 0                      | 0                           |                              |
| 33. Ez-burdinazko metalgintza                                                                                                                                  | 0                            | 0                  | 0                      | 0                           |                              |
| 34. Galdategiak                                                                                                                                                | 0                            | 0                  | 0                      | 0                           |                              |
| 35. Metalezko eraikuntza                                                                                                                                       | 0                            | 0                  | 0                      | 0                           |                              |
| 36. Forja eta estanzioak                                                                                                                                       | 0                            | 0                  | 0                      | 0                           |                              |
| 37. Ingeniaritza mekanikoa                                                                                                                                     | 0                            | 0                  | 0                      | 0                           |                              |
| 38. Metalezko artikulua                                                                                                                                        | 10670                        | 0                  | 0                      | 10670                       |                              |
| 39. Makina erreminta                                                                                                                                           | 0                            | 0                  | 0                      | 0                           |                              |
| 40. Etxeko aparatuak                                                                                                                                           | 20378                        | 0                  | 0                      | 20378                       |                              |
| 41. Bestelako makineria                                                                                                                                        | 0                            | 0                  | 0                      | 0                           |                              |
| 42. Bulego-mak. eta informatika-tres                                                                                                                           | 0                            | 0                  | 0                      | 0                           |                              |
| 43. Material elektrikoa                                                                                                                                        | 9688                         | 8309               | 1379                   | 0                           |                              |
| 44. Material elektronikoa                                                                                                                                      | 18805                        | 18805              | 0                      | 0                           |                              |
| 45. Doitasun handiko materiala                                                                                                                                 | 12582                        | 12582              | 0                      | 0                           |                              |
| 46. Automobilak eta horien piezak                                                                                                                              | 63600                        | 58893              | 0                      | 4707                        |                              |
| 47. Ontzigintza                                                                                                                                                | 714                          | 714                | 0                      | 0                           |                              |
| 48. Bestelako garraio-materiala                                                                                                                                | 1719                         | 1591               | 0                      | 127                         |                              |
| 49. Altzarigintza                                                                                                                                              | 17281                        | 14819              | 0                      | 2462                        |                              |
| 50. Bestelako manufaktura-ind.                                                                                                                                 | 12503                        | 12503              | 0                      | 0                           |                              |
| 51. Birziklatzea                                                                                                                                               | 0                            | 0                  | 0                      | 0                           |                              |
| 52. Energia elektrikoa                                                                                                                                         | 40395                        | 34643              | 5753                   | 0                           | DAI                          |
| 53. Gasa eta ur-lurruna                                                                                                                                        | 12399                        | 10633              | 1766                   | 0                           | DAI                          |
| 54. Ura                                                                                                                                                        | 23800                        | 20410              | 3390                   | 0                           | DAI                          |
| 55. Eraikuntza                                                                                                                                                 | 85988                        | 73742              | 12246                  | 0                           | DAI                          |
| 56. Automobilak saldu eta konpontze                                                                                                                            | 102229                       | 94665              | 7565                   | 0                           | DAI                          |
| 57. Handizkako merkataritza                                                                                                                                    | 180820                       | 155067             | 25753                  | 0                           | DAI                          |
| 58. Txikizkako merkataritza                                                                                                                                    | 390024                       | 334476             | 55548                  | 0                           | DAI                          |
| 59. Ostalaritza                                                                                                                                                | 338276                       | 338276             | 0                      | 0                           | DAI                          |
| 60. Garraioa eta komunikazioak                                                                                                                                 | 8500                         | 8500               | 0                      | 0                           | DAI                          |
| 61. Errepidezko zama-garraioa                                                                                                                                  | 43010                        | 36885              | 6125                   | 0                           | DAI                          |
| 62. Lehorreko bestelako garraioa                                                                                                                               | 47279                        | 47279              | 0                      | 0                           |                              |
| 63. Itsasoko garraioa                                                                                                                                          | 2820                         | 2820               | 0                      | 0                           |                              |
| 64. Aireko garraioa                                                                                                                                            | 14440                        | 14440              | 0                      | 0                           |                              |
| 65. Garraioari erantsiak                                                                                                                                       | 35955                        | 35955              | 0                      | 0                           |                              |
| 66. Komunikazioak                                                                                                                                              | 32739                        | 28076              | 4663                   | 0                           | DAI                          |
| 67. Bankuak                                                                                                                                                    | 4953                         | 4247               | 706                    | 0                           | DAI                          |
| 68. Aseguruak                                                                                                                                                  | 122869                       | 117254             | 5615                   | 0                           | Aseguru-info.                |
| 69. Finantza-laguntzaileak                                                                                                                                     | 3819                         | 3819               | 0                      | 0                           |                              |
| 70. Onibar-jarduerak                                                                                                                                           | 456623                       | 391260             | 65032                  | 0                           | DAI                          |
| 71. Makineria alokatzea                                                                                                                                        | 1271                         | 1271               | 0                      | 0                           |                              |
| 72. Informatika-jarduerak                                                                                                                                      | 0                            | 0                  | 0                      | 0                           |                              |
| 73. Ikerketa eta garapena                                                                                                                                      | 0                            | 0                  | 0                      | 0                           |                              |
| 74. Enpresen bestelako jarduerak                                                                                                                               | 20691                        | 20691              | 0                      | 0                           |                              |
| 75. Herri-administrazioa                                                                                                                                       | 41976                        | 35998              | 5979                   | 0                           | DAI                          |
| 76. Hezkuntza                                                                                                                                                  | 65529                        | 65529              | 0                      | 0                           |                              |
| 77. Osasuna                                                                                                                                                    | 50517                        | 50517              | 0                      | 0                           |                              |
| 78. Gizarte-zerbitzuak                                                                                                                                         | 14747                        | 14747              | 0                      | 0                           |                              |
| 79. Guztiontzako saneamendua                                                                                                                                   | 15275                        | 13100              | 2175                   | 0                           | DAI                          |
| 80. Elkarre-jarduerak                                                                                                                                          | 31652                        | 31652              | 0                      | 0                           |                              |
| 81. Jolas- eta kultur jarduerak                                                                                                                                | 101281                       | 101281             | 0                      | 0                           |                              |
| 82. Gizabanakoentzako zerbitzuak                                                                                                                               | 31706                        | 31706              | 0                      | 0                           |                              |
| 83. Etxeko zerbitzua                                                                                                                                           | 25084                        | 0                  | 25415                  | 0                           |                              |
| Guztira                                                                                                                                                        | 3408095                      | 2665771            | 700008                 | 42318                       |                              |

Egoki litzateke kapital finkoaren eraketa gordinaren kontzeptua argitzea, kontu satelitearen barruan. Kontzeptu hori, arestian aipatu dugunez, kontu nazionalen kontsideratutako azken kontsumoaren zati bat da; beraz, KSEk berak adierazten duena baino haratago doa. Satelitearen barruan, kapitalaren eraketa gordintzat, alde batetik, etxeko produkzioan esku hartzen duten era guztietako makinak eta tresnak sartzen dira (etxeko tresna elektrikoak, altzariak, ...), eta bestetik, aktibo finko gisa erabili ohi diren aparatu eta tresna asko (zartaginak, ontziak, lanabesak,...), pixkanaka erosten direnak, baina urte asko irautean dutenak<sup>11</sup>.

### 2.3.3.- Kapital finkoaren kontsumoa

Enpresetan, produkzio-prozesuan ekipo-ondasunetik egiten den kontsumoari dagokion kostu bat dago; era berean, etxeguneek, produkzio-jardueran narritzen edo balioabetzen diren ondasun iraunkorrak edo erdiraunkorrak erabiltzen dituztenez, kostu hori ere eragiten dute. Beraz, kostu hori etxeko produkzioaren balioaren guztizkoan sartu behar da.

Arazoa kostu hori zenbatesteko eran datza, zeren nazioartean erabiltzen den metodoa, "Inbentario Betiraunkorraren Metodoa" edo IBM, ez baitago ezarrita herrialde guztietan (ezta Euskal AEn ere) eta are gutxiago etxeguneen kasu zehatzerako.

Ondorioz, lan honetan, beharrezko osagai guztiak kalkulatu behar izan dira (kapital finkoaren stock-a, kapital-eraketa, aktibo iraunkorren iraupena kapital-stock-ean erretiratu aurretik, ...), etxeguneen kapital finkoaren kostua zenbatesteko. Metodo aplikatua inbentario iraunkorrarena da, BBV Fundazioaren lanean, "El Stock de Capital en España y su Distribución Territorial"<sup>12</sup>, agertzen den bezala.

Inbentario iraunkorraren metodoaren arabera, kapital finkoaren kontsumoa ondorengo fase hauetan kalkulatu da:

1. **Kapital finkoaren stock gordinaren kalkulua** ondasun iraunkor zein erdiraunkor bakoitzari buruz, etxeko ekonomian inbertsio gisa kontsidera daitekeena, honako formula honen bidez:

$$KB_t^i = KB_{t-1}^i + IB_t^i - R_t^i \quad (1)$$

$$R_t^i = \sum_{j=0}^{M_i} r_j^i IB_{t-j}^i \quad (2)$$

non:  $KB_t^i$  = i aktiboaren kapital-stock gordinaren t aldian  
 $IB_t^i$  = inbertsio gordinaren i-n t aldian.  
 $R_t^i$  = i aktiboaren erretiro t aldian gertatuak.  
 $M_i$  = i aktiboaren bizi-iraupen gorenaren.

<sup>11</sup> Kasu askotan 500 ECUak gainditzen ez dituzten gastu horiek (1995), KSEk bitarteko kontsumo kontsideratzen ditu.

<sup>12</sup> I. liburukia: metodologia. 22-37 orr.

$r_j^i$  = i ondasunaren erretiro-tasa, inbertsioa egin eta  $j - 1$  aldi ondoren. Beraz,

$r_o^i$  uneko aldian egindako inbertsioei aplikatzeko erretiro-tasa da.

(1) eta (2)tik, ondorengo adierazpena ateratzen da, non kapital-stock-a soilik aurreko aldietan egindako inbertsioen mende baitago:

$$KB_t^i = \sum_{j=0}^{M_i} (1 - r_t^i) IB_{t-j} \quad (3)$$

Denboraldi nahiko luze bat igarota (batez besteko bizitzaren inguruko desbiderapen goren gisa definitua) aktiboak desagertzen direla kontuan izanik,  $t - M_i$ -ren ondorengo batugaiak alde batera uzteko eta kapital gordinaren stock-a deribatzeke aukera ematen du, aurreko inbertsioen pilaketa gisa, hasierako kapitalaren stock-a ezagutu beharrik gabe.

Ekuazioa (3), era berean, biziraupen mailan ere adieraz daiteke:

$$KB_t^i = \sum_{j=0}^{M_i} IB_{t-j}^i * g_j^i$$

non  $g_j^i$  =  $t - j$  aldian erositako eta  $t$  aldian oraindik erabilgarri dagoen aktiboaren proportzioa. Proportzio hori aldatu egingo da aktiboaren arabera

Hainbat zehaztapen daude biziraupen-funtzioa kalkulatzeko<sup>13</sup>. Hemen Winfrey 5–3 funtzio iraulia hartu da, zeina arestian aipatu dugun BBV Fundazioaren lanean erabiltzen baita, 10 urteko batez besteko bizitza duten ondasunei buruz; batez besteko bizitza desberdina duten ondasunei buruz, banaketa normaleko funtzio bat aplikatu da, honelako lanetan aplikatu ohi den funtzioa, hain zuzen.

2. **Kapital garbiaren stock-aren kalkulua**, hau da, kapitalak erabilera eta zaharkitzapenagatik jasaten duen baliogabetzetik garbi. Kapital gordinaren stock-a bezala kalkulatu da, baliogabetzea kontuan izanik, eta baliogabetze linealeko eskema bat aukeratu da, ondorengo adierazpenaren bidez:

$$d_j^i = \left( 1 - \frac{t}{E_{t-j}^i} \right)$$

non  $E_{t-j}^i$   $t - j$  aldian egindako inbertsioen bizi-itxaropen guztizkoa baita,  $t$  unean oraindik erretiratu gabe daudenak

3. **Amortizazioaren kalkulua** amortizatzeko geratzen den kopurua eta ondasunaren bizi-urte erabateko erretiro artekoak zenbatetsiz.

<sup>13</sup> Ikus BBV Fundazioa. I. liburukia: metodologia.

### 2.3.4.- Zergak ken diru-laguntzak

Produkzioaren gaineko zergak dira produkzioaren beste kostuetako bat, zeinak, etxeguneen kasuan, errentaren edo aberastasunaren gaineko zergen barruan gertatzen baitira.

Satelitean, horiek guzti horietatik, atera beharko litzateke zein dauden erlazionatuta eta zenbateraino etxeguneen produkzio-prozesuarekin. Bestalde, egia da ere ezen, ez direnez bereziki aipagarriak eta hartuko lukeen zenbatespen-lana altuegia izateagatik, lan honetan ez direla zerga guztiak sartu, baizik eta bakarrik kontu nazionaletan kontsideratutako etxe-produkzioaren zergak.

Diru-laguntzei dagokienez, satelitearen barruan, honela ulertu beharko lirateke: herri-administrazioek etxeguneei ordainik gabe egiten dizkieten ordainketak, haien produkzio-jardueraren ondorioz. Ildo horretatik, Eurostaten proposamenak adierazten duenez, sartu beharreko diru-laguntza mota nagusia kontabilitate nazionalen "gizarte-transferentzia" kontsideratzen direnak dira, hau da, erakunde publikoetara eraman beharrean, haurrak, zaharrak, gaixoak, minusbaliatuak, etab. etxean zaintzen dituzten familiei ordaintzen zaizkienak.

Euskal AEko kontu sateliteari dagokionez, ez da inolako kopururik sartu, zeren transferentzia horiek ez baitira oso adierazgarriak edo ez dira batere adierazgarriak azterketako ekitaldietan; izan ere, laguntza horiek beste erakunde-unitate batzuen bidez bideratzen dira (herri-administrazioak, enpresak, ...).

## ETXEKO SATELITEAN OSATUTAKO KONTUAK

Euskal AERen etxeko satelitean garatu diren kontuak produkzio-kontua eta ustiapen-kontua izan dira, bai eta ondasun eta zerbitzuen kontua, produkzio-kontua eta ustiapen-kontua ere, ekonomia orokor hedatuari buruz<sup>14</sup>.

Kontu horiek osatzeak KSEn erabilitako kontzeptuetako batzuk zabaltzea edo aldatzea ekarri du: produkzio-muga handitu da, lan-balio bat egotzi da, eta kontsumo kontzeptua aldatu da.

Ondoren aipatuko dira zein kontuk osatzen duten gure ekonomiari buruzko etxeko kontu satelitea.

**PRODUKZIO-KONTUA:** kontu honek, baliabideen atalean, etxeguneek sortutako produkzioa aurkezten du, eta produkzio horretan, KSEren mugen barruan sartzen dena zein kanpoan geratzen dena eta etxeko satelitean kontsideratu behar dena bereizten ditu. Erabileren atalean (produkzio-kontu guztietan bezala) produkzio horretan erabilitako bitarteko kontsumoak agertzen dira, eta saldo gisa, etxeguneek ekonomian sortutako balio erantsia lortzen da.

**USTIAPEN-KONTUA:** kontu honek, baliabide gisa, aurreko kontuaren saldoa aurkezten du, hau da, balio erantsi gordina; erabileren atalean, berriz, atal horren osagai guztietan (soldatak, zergak eta diru-laguntzak), ondoriozko saldoa soberakin gordin sortua edo errenta mistoa da. Bertako azken erabilerako produkzioaren kasuan, soberakin edo errenta hori norberaren etxebizitza alokatzetik egotzitako zatia kontsideratzen da, zeren produkzioaren beste zatiak kostuengatik kontsideratzen baitira, eta ez dute soberakin edo errenta mistorik sortzen.

Bi kontuetan, doitze-partida batzuk ere agertzen dira, kontu nazionaletan sartutako zatia guztizkoetan ez bikoizteko. Kontu horiek bertako azken erabileraren etxeko produkzioari buruz aurkezten dira, bai eta etxeguneen merkatu-produkzioari buruzko guztizkoari buruz, etxeguneek sortutako jarduera ekonomikoari buruzko ikuspegi orokor bat ematearren.

Era berean, ondasun eta zerbitzuen kontua, produkzio-kontua eta sarreraren ustiapen- edo sorkuntza-kontua aurkezten dira, ekonomia osoari buruz, eta etxeko produkzioa ekonomiaren zati gisa eransten da, gure ekonomiaren guztizkoan duen pisua aztertu ahal izateko.

<sup>14</sup> Zabalduak ekonomiaren guztizkoa esan nahi du, KSEn arabera kontu nazionalen mugetatik kanpo geratzen den etxeko produkzioa barne dela.



Kontuen osagarri gisa, KSetik kanpo geratzen den etxeko produkzioa funtzioka, herrialde historikoka eta sexuka ere aurkezten da, bai eta, bertako azken kontsumoko produkzioa ere, KSEn sartzen den zatia kontu horretatik kanpo geratzen den zatitik bereiziz.

## EMAITZEN ANALISIA

Etxeko lanaren kontu satelitearen bidez, etxeguneek ekindako produkzio-jarduerei buruzko ikuspegi orokor bat lortzen dugu, bai eta jarduera horien zenbatespen ekonomiko bat ere, eta lanaren interes funtsezkoa bertako erabilerako etxeko produkzioan zentratzen da, haren balioespena ez baitago sartuta herrialde baten kontu ekonomikoetan, Kontuen Sistema Europarrak ezarritako irizpideei jarraituz.

Gure erkidegoko etxeko produkzio BPGan ez zenbatuak lortzen duen balio erantsi gordina, 1998ari buruz, 2.228.267 milioi pezetakoa da, hau da, BPGaren % 40,1; ehuneko hori % 50,2raino igotzen da 1993. urteari buruz.

Euskal satelitean erabilitako metodo berdinekin, azterketa baliokideren bat egin duten herrialdeei erreparatzen badiugu,<sup>15</sup> esan dezakegu ezen produkzio horrek BPGaren % 35etik % 55era hartzen duela. Zaila da, oraingoz, beste ekonomiei buruz, euskal satelitetik denboran hurbilago dauden datuak lortzea, eta horrek ez du ahalbidetzen erkaketa handiak egitea. Soilik esan daiteke kontsultatu diren herrialdeen artean (4.1 taula), EAEko etxeko produkzioaren balioa bitarteko toki batean geratzen dela.

Balio horrek azterketaren bi urteetan, 1993 eta 1998an, lortu duen bilakaera aztertzen badugu, egiazta dezakegu ezen etxeko balio erantsia hamar puntu jaitسي dela, BPGaren aldean. Beherapen hori Ironmonger-ek<sup>16</sup> **«etxeko lan ordaindu gabearen izaera kontraziklikoa»** deitzen duena da. Hau da, noiz eta merkatuko ekonomiak hazkunde bat izaten duenean ziklo ekonomikoan, baliabideak hartzen ditu etxeko ekonomiatik, eta ondorioz, etxeko produkzioak behera egiten du; aldiz, krisialdietan, kontrako eragina izaten du, baliabideak merkatuz besteko etxeko ekonomiara bideratzen baititu.

<sup>15</sup> Ordezkapen-kostuen balioespen-metodoa deritzana.

<sup>16</sup> Ironmonger 1989; Statistics Canada, 1995.

**TAULA 4.1 MERKATUZ BESTEKO ETXEKO PRODUKZIOAK BARNE-PRODUKTU GORDINAREN ALDEAN DUEN BEG-AREN NAZIOARTEKO ERKAKETAK (ORDEZKAPEN-KOSTUEN METODOAREN ARABERA)**

| Herrialdea      | Erreferentzia-urtea | % BPGaren aldean | Emakumeek egindako EPren % |
|-----------------|---------------------|------------------|----------------------------|
| Kanada          | 1992                | 41               | 63                         |
| Finlandia       | 1990                | 45               | -                          |
| Australia       | 1992                | 54               | 66                         |
| Zeelanda Berria | 1991                | 42               | 65                         |
| Norvegia        | 1990                | 38               | 66                         |
| USA             | 1976                | 32               | -                          |
| Frantzia        | 1975                | 31               | -                          |
| Alemania        | 1992                | 68               | -                          |
| Japonia         | 1996                | 15               | 85                         |
| Suitza          | 1997                | 45               | 67                         |
| Euskal AE       | 1993                | 50               | 79                         |
| Euskal AE       | 1998                | 40               | 74                         |

*Iturria: Australian Bureau of Statistics eta Eustat.*

Izan ere, eragin hori aztergai diren bi urteetan biltzen da. 1993an, gure ekonomiak, gainerako ekonomia garatu guztiek bezala, puntualtzat jo daitekeen atzeraldi bat jasan zuen; aldi horretan, merkatur besteko etxeko jardueraren pisuak % 50,2 lortu zuen, BPGaren aldean. 1998. urtea, aldiz, hedapen ekonomikoko urtea da, orain arte laurogeita hamarreko hamarkadako bilakaerarik onena izan baitu; ondorioz, merkatur besteko etxeko produkzioaren pisua jaitsi egin da, eta urte horretan % 40,1 hartzen du.

Etxeko produkzio ordaindu gabeak jarraitutako bilakaeraren osagaiak, kopurua eta pisua xehetasun handiagoz aztertzen badugu, ikusiko dugu kopuru errealetan (etxeko produkzioaren ordu-milakotan) hazkundea zeinu negatibokoa izan dela (% -4,86); lan-eskuaren prezioek, aldiz, % 19ko hazkundea izan dute, hau da, kopuru nominaletan, igoera % 13koa da. Ekonomia errealak, berriz, % 20ko hazkunde erreala lortu du, eta prezioen igoera etxeko produkzioari buruz aipatutakoaren parekoa izan da; ondorioz, ekonomiak % 42,8ko igoera izan du kopuru nominaletan.

Kontu satelitea osatzen duten gainerako makromagnitudeei dagokionez, 5.6.1 taulan agertzen denez, produkzioak % 26,6 eta bitarteko kontsumoak % 12 hartzen dute, biak kontu ekonomikoen makromagnitute beren aldean. Azken kontsumoak, etxeko lanaren ordainketak barne, Euskal AEko Kontu Ekonomikoetan kontsideratutako azken kontsumoaren % 85,9 hartuko luke. Bestalde, etxeguneek egin zuten inbertsioak (etxebizitzetan egindakoa sartu gabe, zeina kontu nazionalen KFEKn sartzen baita) guztizkoaren % 3,3 hartzen du, gure ekonomiaren beste sektoreei buruz.

Lan-eskuaren ordainketari dagokionez, bertako erabilerako etxeko lanak egindakoari dagokionak ekonomiaren guztizko ordainketaren % 78,8 hartuko luke. Hala eta guztiz ere, ehuneko horiek igo egiten dira, kontsideratzen den urtea 1993 bada, zeren, arestian aipatu denez, etxeko lanaren neurria, beste batzuen aldean, merkatu orokorrarena baino handiagoa baitzen, abagune hori zikloaren atzeraldia igortzen ari baitzen.

**4.2. TAULA KSE EKONOMIAREN ETA KSE-Z BESTEKO PRODUKZIOAREN BILAKAERA. PREZIO UNEKOAK ETA FINKOAK. EUSKAL AE**

|                                                     | 1993      | 1998      | Ald. % |
|-----------------------------------------------------|-----------|-----------|--------|
| <b>KOPURU UNEKOAK</b>                               |           |           |        |
| Etxeko produkzioa. KSEz bestekoa. BEG fin           | 1.953.561 | 2.228.261 | 14,0   |
| Barne Produktu Gordina. KSE                         | 3.892.107 | 5.558.593 | 42,8   |
| <b>KOPURU FINKOAK</b>                               |           |           |        |
| Etxeko produkzioa. KSEz bestekoa. Ordu-milakoak     | 2.022.939 | 1.924.622 | -4,9   |
| Barne Produktu Gordina. KSE                         | 4.227.401 | 5.089.855 | 20,4   |
| <b>PREZIOEN BALIOESPENA (Deflaktoreak)</b>          |           |           |        |
| Etxeko produkzioa. KSEz bestekoa (soldaten prezioa) | —         | —         | 19,9   |
| Barne Produktu Gordina. KSE                         | —         | —         | 18,6   |

**4.1.- Balio erantsi sortua funtzioa**

Etxeko produkzioaren balio erantsia funtzio nagusien arabera sailkatzen badugu, ikusiko dugu bi funtzio hauek biltzen dituztela balio-kuota handienak: ostatua eskaintzeak (% 31,6) eta janaria eskaintzeak (% 44,9). Proportzio txikiagoan daude haurrak eta zaharrak zaintzea (% 14,1) eta arropa zaintzea (% 9,5). Oro har, egitura hori kontsultatu diren herrialdeenaren baliokidea da; hala ere, funtzioetako bakoitzaren balio handiagoa eta txikiagoa herrialdeetako bakoitzaren portaerako gizarte-ereduen eta bizimoduen mende egongo da. Datu bitxi gisa, honako hau aipa daiteke: gure erkidegoko etxeguneetan, beste bi ekonomia erkatuetan (Australia eta EEBB) baino balio handiagoa lortzen dute janaria eskaintzea eta haurrak eta zaharrak zaintzea funtzioek; ostatua eskaintzea eta arropa zaintzea funtzioek, aldiz, pisu txikiagoa lortzen dute.

**4.3. TAULA ETXEKO PRODUKZIOAREN BEG FUNTZIOKA**

| Funtzioak                          | EAE<br>(1993) | EAE<br>(1998) | Australia<br>(1992) | EEBB<br>(1985) |
|------------------------------------|---------------|---------------|---------------------|----------------|
| Ostatua eskaintzea                 | 31,9          | 31,6          | 37,1                | 36,8           |
| Janaria eskaintzea                 | 45,8          | 44,9          | 35,2                | 40,7           |
| Zainketak eta hezkuntza eskaintzea | 13,1          | 14,1          | 12,7                | 10,9           |
| Arropa eskaintzea                  | 9,2           | 9,5           | 15,0                | 11,6           |


Azterketako bi urteen artean, oro har ez da asko aldatzen funtzioakako banaketa hori; dena dela, ikusten da janaria prestatzea funtzioak pisua galdu duela, etxeguneko pertsonen zainketak eta hezkuntza funtzioaren mesedetan.

## 4.2.- Etxeko produkzioaren banaketa sexuka eta funtzioka


Denbora Aurrekontuen Inkesta osatu izanak aukera ematen digu sexu bakoitzak zeregin bakoitzari zenbat denbora eskaintzen dion jakiteko. Zeregin horiek, gainera, kontu satelitean zehaztu ditugun funtzioen arabera taldekatu dira, eta metodologiaren atalean aipatu ditugun irizpideen arabera balioetsi ditugu.

Etxeko produkzioa produkzio hori nork egiten duen arabera aztertzen badugu, ikusiko dugu, 1998an, % 25,6 gizonezkoek egiten zutela da; % 74,4, berriz, emakumezkoek. Nahiz eta ohiko rol-banaketa ez den aldatu etxeguneetan, antzematen da aurrerapen txiki bat gertatu dela bi azterketa-aldien artean, zeren, 1993an, gizonezkoek egindako produkzioa % 20,7koa baitzen (hau da, irabazia % 4,9koa da). Gizonezkoen irabazi hori oso homogeneoa da funtzio guztien artean; dena dela, aipa dezakegu irabazia zertxobait handiagoa dela etxeguneko pertsonen hezkuntzarekin eta zainketekin lotutako zereginetan.

**4.1. GRAFIKOA. GIZONEZKOEN PARTAIDETZA ETXEKO PRODUKZIOAN, FUNTZIOKA.1998-1993**



**4.2 GRAFIKOA. EMAKUMEZKOEN PARTAIDETZA ETXEKO PRODUKZIOAN, FUNTZIOKA.1998-1993**



Azken funtzio horrek biltzen du, hain zuzen, gizonezkoen partaidetza handiena (auzolana kontuan hartzen ez badugu), % 36raino iristen baita. Aldiz, arropa eskaintzea eta arropa zaintzea funtzioak gizononezkoen partaidetza txikienekoak dira (% 10 ingurukoak), eta alde hori, gainera, are handiagoa da 1998ari buruz. Gizonezkoek egiten dituzten zeregin zehatzetara jaisten bagara, ikusten da partaidetza handiagoa dela honako hauek: kudeaketak (% 74), etxeguneko mantenimendu-zerbitzuak (% 81,4) ostatu funtzioarekin lotutako joan-etorriak (% 53,7). Hala ere, emakumezkoek ere igo egin dute mantenimendua eta bestelako konponketak funtzioari eskaintzen dioten denbora, eta murriztu egin dute 1993an gizonezkoekiko zuten aldea.

Emakumeek etxeko produkzioan duten partaidetza erkatzen bada (4.1 taula), ikusten da Euskal AE emakumezkoen partaidetza handieneko ekonomien artean dagoela, Japoniaren atzetik. Horrek argi eta garbi erakusten du gure ingurune europarreko herrialde aurreratuenekiko dagoen alde handia, gizonezkoek produkzio horretan duten partaidetzari dagokionez.

### 4.3.- Etxeko produkzioaren kostuen banaketa


**4.4 TAULA ETXEKO PRODUKZIOAREN KOSTUEN BANAKETA. EKONOMIA OSOAREKIKO ERKAKETA (KSE). EUSKAL AE**

|                            | Etxeko Kontu Satelitea |       |           |       |       | Ekonomia osoa KSE |           |       |
|----------------------------|------------------------|-------|-----------|-------|-------|-------------------|-----------|-------|
|                            | 1998                   |       | 1993      |       | 98/93 | 1998              | 1993      | 98/93 |
|                            | Balioa                 | %     | Balioa    | %     | Δ%    | Balioa            | Balioa    | Δ%    |
| <b>Produkzioa</b>          | 2.928.275              | 100,0 | 2.490.440 | 100,0 | 14,9  | 11.008.393        | 6.809.432 | 61,6  |
| <b>Bitarteko kontsumoa</b> | 700.008                | 23,9  | 536.879   | 21,5  | 30,4  | 5.852.929         | 3.202.281 | 82,8  |
| <b>Lanaren balioa</b>      | 2.196.296              | 75,0  | 1.926.761 | 77,4  | 13,9  | 2.787.851         | 2.218.468 | 31,0  |
| <b>Kapital-kontsumoa</b>   | 31.971                 | 1,1   | 26.820    | 1,1   | 19,2  | 504.930           | 340.750   | 48,2  |

Merkatuz besteko etxeko produkzioa, kostuen osaerari dagokionez, lanak eskaintzen duen balioak finkatzen du (% 75); bitarteko kontsumoek eta kapital finkoaren kontsumoak, berriz, % 23,9 eta % 1,1 eskaintzen dute, hurrenez hurren. Kostu horiek bilakaera ona izan dute azterketa-aldian, eta ekonomiako beste sektoreetako kostuek izan duten joera berari eutsi diote, hau da, bitarteko kontsumoen partaidetzak gora egin du eta lanaren balioespenak, aldiz, behera. Izan ere, laurogeita hamarreko hamarkadan, lan-kostuak ez gora ez behera ibili dira.

Alde batetik, esan dugunez, lan-eskuaren balioespena moteldu egin da, eta, bestetik, etxeko zereginetako lanean sartutako ordu-kopurua jaitsi egin da; hori guztiaren ondorioz, etxeko produkzioa % 14,9 igo da, hau da, oso maila txiki batera, ekonomiaren guztizko produkzioaren aldean (% 61,6).


#### 4.3 GRAFIKOA. ETXEKO PRODUKZIOAREN KOSTUAK, FUNTZIOKA 1998.



#### 4.4.- Etxeguneen kontu zabaldua

Etxeguneen kontu zabalduztat, honako hau ulertzen da: merkatu-produkzioa sartzen duten kontu ekonomikoak, KSEren arabera ekonomiaren kontu ekonomietan sartzen den merkatuz besteko produkzioa, eta KSEn sartzen ez den etxeko produkzioa.

Etxeguneen kontu zabaldu hori aztertzeak, gainera, etxeguneen sektorean dagoen potentzial ekonomikoa eta ekonomia osoan duen garrantzia ezagutzeko aukera ematen digu.



#### 4.5. TAULA: EUSKAL AE-KO ETXEGUNEEN PRODUKZIO ZABALDUA

|                                                                       | 1993      |       | 1998      |       |
|-----------------------------------------------------------------------|-----------|-------|-----------|-------|
|                                                                       | Balioa    | %     | Balioa    | %     |
| Gututzko produkzio zabaldua <sup>17</sup>                             | 4.447.001 | 100,0 | 5.613.786 | 100,0 |
| 1. Etxeko produkzioa (KSE)                                            | 1.956.561 | 43,9  | 2.685.511 | 48,1  |
| 1.1 KSEn sartutako bertako azken erabilerako produkzioa <sup>18</sup> | -350.068  |       | -516.649  |       |
| 1.2 Merkatu-produkzioa                                                | 1.606.493 | 36,1  | 2.168.862 | 38,6  |
| 2 Bertako erabilerako gututzko etxeko produkzioa                      | 2.840.508 | 63,9  | 3.444.924 | 61,4  |
| 2.1 Norberaren etxebizitzaren alokairu-zerbitzua (KSE)                | 319.348   | 7,2   | 477.884   | 8,5   |
| 2.2 KSEn sartutako bertako erabilerako etxeko produkzioa              | 30.720    | 0,7   | 38.765    | 0,6   |
| 2.3 KSEn sartuta ez dagoen bertako erabilerako etxeko produkzioa      | 2.475.373 | 55,7  | 2.908.457 | 52,0  |
| 2.4 Borondatezko lana (auzolana)                                      | 15.067    | 0,3   | 19.818    | 0,3   |

<sup>17</sup> Produkzio zabaldua honela lortzen da: merkatu-produkzioa gehi bertako erabilerako gututzko etxeko produkzioa.

<sup>18</sup> Kendu egiten da, 2.1 eta 2.2 ataletan sartzeko.



4.5 taulan etxeguneen guztizko produkzioa agertzen da, KSEren arabera sartzen den produkzioa –eta beraz, kontu ekonomikoen balioespenean sartzen dena– eta KSEn sartzen ez den produkzioa kontuan hartuta. Emaizak azertu aurretik, dena dela, partidetako bakoitzaren esanahia azalduko dugu:

1. KSE etxeko produkzioa: KSEk finkatutako produkzio-mugen barruan sartzen den etxeko produkzioa hartzen du; muga horien barruan, etxeguneei eragile ekonomiko gisa egiten duten merkatu-produkzioa sartzen da (1.2), hau da, autonomo, sozietate zibil eta familia-enpresa gisa egindakoa..., bai eta KSEk zehazten duen bertako azken erabilerakoa ere (1.1) (norberaren etxebizitzaren alokairuak, nekazaritza-etxeguneetako autokontsumoa, etxebizitza norberak eraikitzea, ...).
2. Bertako erabilerako etxeko produkzioa. Etxeguneko kideak asebetetzeko etxegunean berean egiten den produkzioa da, zatirik handienean KSEren mugetan sartzen ez dena. KSEn kontsideratutako zatia ere sartzen da, bai eta borondatezko lana ere, metodologiaren atalean aipatu den bezala.

Etxeguneen produkzio zabalduaren guztizkoa nola banatzen den aztertzen digu, egiaztatzen da % 38,6 merkatu-produkzioa dela, zeina 1998an 2.168.862ko baita, gainerako % 61,4 bertako azken erabilerako produkzioa delarik. Produkzio horretatik, % 52 ez dago sartuta KSEren mugetan, eta, beraz, ezta euskal kontu ekonomikoen balioespenetan ere.

Azterketako bi urteen arteko bilakaerak berriro ere erakusten du etxeguneetako merkatu-jarduerak pisua irabazi duela, bi puntu inguru; bertako azken erabilerako produkzioak, aldiz, pisua galdu du.

**4.6 TAULA ETXEGUNEEK SORTUTAKO BALIO ERANTSI GORDINA**

| BEG                                            | 1993      |                | 1998      |                |
|------------------------------------------------|-----------|----------------|-----------|----------------|
|                                                | Balioa    | %/BEG zabaldua | Balioa    | %/BEG zabaldua |
| BEG, merkatu-p.                                | 817.924   | 26,8           | 1.135.262 | 30,0           |
| BEG, bertako azken erabilerako p.              | 2.234.405 | 73,2           | 2.644.502 | 70,0           |
| - Alokairu-zerbitzuak (KSE)                    | 260.908   | 8,5            | 390.432   | 10,3           |
| - Beste produkzio bat (KSE)                    | 19.936    | 0,7            | 25.803    | 0,7            |
| - Azken erabilerako produkzioa (KSEz bestekoa) | 1.938.494 | 63,5           | 2.208.449 | 58,4           |
| Auzolana                                       | 15.067    | 0,5            | 19.818    | 0,5            |
| BEG zabaldua                                   | 3.052.329 | 100            | 3.779.764 | 100            |

Etxeguneei sortutako BEGari dagokionez, bertako azken erabilerako produkzioak bere pisua igo du guztizkoaren aldean; izan ere, logikoa denez, produkzio hori trinkoagoa da lan-eskuaren aldetik, eta 1998an % 70raino hartu zuen (% 58,4, hain zuzen, KSEn zenbatzen ez den etxeko produkzioak sortutako produkzioari dagokio). Aldagai horrek azterketa-aldietan izan duen bilakaerak berriro ere azpimarratzen du merkatu-jarduerak pisua irabazi dutela etxeguneei sortutako balio erantsiaren barruan; bertako azken erabilerako jarduerak, aldiz, pisua galdu dute (3,2 puntu), guztizko BEG zabalduaren aldean.

## 4.5.- Etxeguneen azken kontsumoa kontu satelitean

Honelako lan bat egiteak dakarren xedeetako bat da etxeguneek egindako kontsumoa hobeto ezagutzea, kontuan izanik etxeguneak ere, definizioz, ondasun eta zerbitzuen produktoreak direla, etxeguneak osatzen dituzten kideak asebetetzeko.

Metodologiaren atalean adierazi denez, azken kontsumoa, kontu ekonomikoetan pentsatuta dagoen bezala, kontu satelitearen ikuspuntutik, hiru osagaitan banatu behar da: azken kontsumoa bera, etxeguneen bitarteko kontsumoa, eta etxeguneek ondasun iraunkor eta erdiraunkorretan egiten duten inbertsioa (norberaren etxebizitzan egiten den inbertsioa salbuetsita).

Banaketa horrek, 1998ari buruz, azken kontsumoaren % 78,3ko pisua hartzen du, bitarteko kontsumoaren % 20,5eko pisua, eta kapital finkoaren eraketa gordinaren % 1,2.

Arestian aipatu denez, azken kontsumoa, etxeko kontu satelitearen barruan, honela definitzen da: kontu ekonomikoetako azken kontsumoa ken bitarteko kontsumoan input gisa erabiltzen den kontsumoa (bitarteko kontsumoa satelitean) eta ken etxeko produkzioari laguntzen dioten ondasun iraunkor eta erdiraunkorren kontsumoa, gehi kontu ekonomikoetan sartzen ez den etxeko produkzioa. Azken kontsumo horrek, kontabilitate nazionaleko etxeguneen azken kontsumoaren barruan, % 85,9 hartzen du, eta 1993ari buruz, % 95,2ra igotzen da.

### 4.7 TAULA ETXEGUNEEN AZKEN KONTSUMO ZABALDUAREN BANAKETA

|             | Azken kontsumoko produktuetoako gastuak |      | Bertako azken erabilerako etxeko produkzioa |      | Etxeguneen guztizko kontsumo zabaldua |       |
|-------------|-----------------------------------------|------|---------------------------------------------|------|---------------------------------------|-------|
|             | Balioa                                  | %    | Balioa                                      | %    | Balioa                                | %     |
| <b>1993</b> | 2.047.443                               | 45,1 | 2.490.440                                   | 54,9 | 4.537.883                             | 100,0 |
| <b>1998</b> | 2.665.770                               | 47,7 | 2.928.275                                   | 52,3 | 5.594.045                             | 100,0 |

Kontu ekonomikoen filosofian, kontsumoaren definizio horrek honako hau adierazten du: etxeguneek beren asebetetarako zuzenean merkatutik benetan kontsumitu dutena, eta etxegunean sortu den etxeko produkzioaren balioa era berean etxeguneko kideen asebetetara lortzeko. Berriro ere egiazta dezakegu nola atzeraldi ekonomikoetan, hala nola 1993koan, bertako produkzioaren proportzioa oparoaldi ekonomikoko urte batean baino handiagoa den, igo egiten baita zuzenean merkatuan egiten den azken kontsumoaren proportzioa.


Azkenik, bitarteko kontsumoaren funtzioakako banaketan, zatirik handiena janariak prestatzea funtzioak eramaten du (% 66), eta ondoren, ostalua eskaintzeak (% 29,6); arropa eskaintzea eta pertsonen zainketa eskaintzea funtzioek bitarteko kontsumoen % 1,6 eta 2,8 erabiltzen dute, hurrenez hurren.

## 4.6.- Kapital finkoaren eraketa gordina

Kapital finkoaren eraketa gordina, etxeko kontu satelitearen irizpideari jarraituz, honako hauek osatzen dute: bertako azken erabilerako etxeko produkzioan kapital-ondasun gisa erabiltzen diren ondasun iraunkorrak eta erdiraunkorrak, baldin eta, kontabilitate nazionalan, haien balioa etxeguneen azken kontsumoaren barruan sartuta badago.

1998ko ekitaldiari buruz, eraketa gordinak ekonomiaren osoko kapital finkoaren eraketa gordinaren % 3,3 hartzen du (KSEren arabera): % 55,3 janaria prestatzea funtzioan erabiltzen da, % 22,9 ostatua eskaintzea funtzioan, % 16 arropa prestatzea funtzioan, eta % 5,8 etxeguneko kideen zainketa eta hezkuntza funtzioan.

4.4 GRAFIKOA. KFEG-REN FUNTZIOAKO BANAKETA



## 4.7.- Lanaren ondorioak

